

**UPV/EHUko IKASTURTEAREN HASIERA
APERTURA CURSO DE LA UPV/EHU**

2024-09-12 Campus de Leioa- 12-09-2024

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Eusko Legebiltzarreko presidentea, Bizkaiko Ahaldu Nagusia, Sailburuok, Herri agintari eta ordezkariok, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea, euskal unibertsitateetako errektore eta ordezkariok, irakasle eta ikasleok, jaun-andreok, egun on!

Zaila da herri bati prestigioa ematen dioten elementuak zerrenda bakarrean islatzea. Batzuentzat batzuk izango dira. Besteentzat beste batzuk. Eztabaida antzua izango litzateke. Amaigabea.

Baina bada elementu bat prestigioaren zerrenda horietan guztietan etengabe agertuko litzatekeena: herri horren unibertsitate sistema, hain zuzen ere.

Baina, zer da prestigioa? Zer da izen ona? Hamaika definizio egon daitezke baina, laburbilduz, esan genezake prestigioa norbaiti edo zerbaiti, bere merezimenduaren ondorioz, estimua izatea dela.

Hau da, aurrekoaren aitortza jasotzea.

Herrialde aurreratuenek, gure erreferentzia izan daitezkeen herrialdeek, unibertsitate eta zientzia sistema aurreratuenak dituzte. Aski da urtero argitaratzen diren ranking-ak ikustea. Estatu Batuak, Britainia Handia, Frantzia, Kanada, Japonia, Suitza...

Eta zergatik errepikatzen dute urtez urte zerrenda horietan? Ezagutzan sinisten dutelako. Ezagutzan inbertitzen dutelako. Ezagutza aurreratua erdigunean jartzen dutelako.

Ez dut ezer berririk esaten munduko herrialde eta eskualde aurreratuenek abangoardiako erakunde zientifiko eta akademikoak dituztela esaten dudanean. Ondo dakizue zuek hori.

Eta gauza bat argi dugu: Europaren abangoardian egongo bagara, erabakitasunez heldu beharko diogu anbizio handiko politika zientifiko eta Unibertsitarioari. Horretan ari gara.

Euskadi, bere tamainan, munduko erreferenteen artean kokatu nahi dugu, baldintza onenak izan ditzakegun arloetan eta gure herrirako estrategikoak diren eremuetan. Baditugu aukerak horretarako. Baita baliabideak ere.

Zalantzarik gabe, hemen zaudeten guzti-guztiok, arrakastaren giltza zarete. Noski, administrazio publiko konprometitu baten erabateko konplizitate eta laguntzarekin.

Todas y todos convendremos que el conocimiento nos hace más libres. Que nos aporta herramientas para ser más objetivos e independientes.

Sabemos que la creación de conocimiento avanzado es una componente fundamental de la actividad universitaria.

Y en ese arte del 'crear', el profesorado universitario, así como el investigador, son un agente indispensable. Un agente que cumple una doble función: crear y transmitir. Adquirir y dar conocimiento.

Uno no se entiende sin lo otro. O, dicho de otro modo: uno no podría existir sin el otro.

A aquel que investiga y comprende para luego enseñar, le mueve la curiosidad y la duda permanente. Le inspira su propio espíritu crítico. Y esto es, sencillamente, extraordinario.

Lo es por su sencillez. Y lo es, también, por su fuerza. Porque todo parte de una premisa básica: la aceptación de las debilidades y fortalezas de una o uno mismo.

Creo que esta idea es también trasladable al conjunto de la sociedad. En estos tiempos de cambios e incertidumbre, auge de populismos, posverdad, demagogia o corrientes autoritarias, el conocimiento juega un papel clave, para acercarse a la verdad.

Al igual que el avance científico exige la formulación de preguntas adecuadas, el progreso de un país depende de la capacidad colectiva para hacerse las preguntas correctas en cada momento histórico. Por eso debemos acertar en la formulación de las preguntas adecuadas que el momento exige en Euskadi. Y el momento exige construir la nueva Euskadi del bienestar.

Y para ello, como Lehendakari del nuevo Gobierno, y siendo plenamente conscientes del papel crucial que cumple la ciencia y la universidad, hemos creado el nuevo Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación. Con una persona de contrastada valía y prestigio al frente que nos ayudará a cumplir todos nuestros objetivos.

Pero el conocimiento avanzado no se crea solo. Y es ahí donde entráis todas y todos vosotros. La sociedad vasca os necesita. Siempre os ha necesitado.

Os necesita para poder trasladar todo ese conocimiento a estudiantes que se convertirán en un nuevo eslabón de una misma cadena.

Os necesita para poder impregnar nuestro sistema de salud, de educación, de cultura o al tejido empresarial. En definitiva, os necesitamos para mejorar nuestra calidad de vida en todos los sentidos.

Considero que la mejor política universitaria reside en crear las máximas y mejores oportunidades posibles. Oportunidades para las y los profesores, investigadores y, sobre todo, estudiantes.

Lo dije en la apertura del curso escolar y lo repito hoy delante de la comunidad universitaria: debemos pensar muy bien qué queremos dar a nuestros jóvenes porque será lo que ellas y ellos nos darán en el futuro.

Quienes os dedicáis a la ciencia o estáis en la universidad debéis trabajar con total libertad. Libertad para ensayar e intentarlo. Y libertad para errar. Es así como avanza la ciencia y es así como avanzará nuestra sociedad.

No tengáis miedo en avanzar hacia la frontera del conocimiento y en alcanzar la excelencia con la ambición de estar entre los mejores, pues contaréis siempre con el respaldo del Gobierno Vasco.

Es nuestra obligación crear las condiciones necesarias para que vuestro trabajo de los mejores frutos posibles. Desde la humildad de nuestro tamaño, pero con la máxima autoexigencia, convicción y pasión. Son las recetas en las que creemos.

Los mejores sistemas universitarios y centros de investigación son instituciones enraizadas en la sociedad a la que pertenecen. Sencillamente, no pueden ser copiados o exportados.

Debemos construir cada día el nuestro. Creo que sería un excelente indicativo de una buena política universitaria. Una buena política para crear el conocimiento avanzado que requiere nuestra sociedad.

Ezagutza handitzeak herri baten prestigioa handitzea dakar eta hori da gure unibertsitate sistemak ahalbidetu behar duguna.

Garai honetan, Europan eta munduan jokoan dagoenarekin, ezagutzan eta ikerketan gaur inbertitzen duguna, datozen belaunaldien oparotasunean inbertitzea izango da. Egin dezagun posible.

Jakin badakit Euskal Herriko Unibertsitatea eta berau osatzen duzuen irakasle, ikertzaile, langile eta ikasleak bidelagun eta iparrorratz izango zaituzteguna, lidergoa beste behin ere erakutsiz.

Ilusioa dugu. Baliabideak baditugu. Eta exigentzia maila erabatekoa izango da. Ez izan zalantzarik.

Mezu hau bera helarazi behar diogu gizarteari, pertsona guztiak gure aldamenean izan behar ditugulako. Horregatik ere hartzen du horrenbesteko garrantzia komunikazio zientifikoak. Dibulgazioak, eta azken batean, herri baten kultura zientifikoak.

Egin dezagun gizartea, pertsona bakoitza, gure bidelagun. Ekarri dezagun gure aldamenera. Egin dezagun mundu guztia ezagutzaren partaide.

Eman eta zabaldu dezagun, gure ongizatean eta demokrazian ere sakontzeko. Helburu hauek guztiak betetzeko asmoarekin hasiera ematen diot 2024-2025 Euskal Herriko Unibertsitateko ikasturte berriari!

Eskerrik asko!